

HAURREKIN

OSPATZEN DIREN MEZETARAKO

II. ESKER ONEZKO OTOITZA

Jauna zuekin. **R̄.** Eta zure izpirituarekin.
 Gora bihotzak. **R̄.** Jaunari dauzkagu.
 Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R̄. Egoki da eta zuzen.

Bai, Aita guziz ona, pozik gaude zurekin :
 gure bihotzak esker onez beterik dauzkagu eta
 Jesu Kristorekin batera zorionsu gaude zure Elizan.

Bai, maite gaituzu :
 mundu handi eta eder hau
 zuk egiten duzu guretzat.

Denek Aintza zuri, Jauna, - aintza ! -
 Jauna, maite gaituzu - maite ! -
 Aintza zuri, Jauna, - aintza ! -
 Jauna, maite gaituzu




Bai, maite gaituzu :
 Jesus zure Semea emaiten daukuzu,
 gu zureganat eremaiteko.

Bai, maite gaituzu :
 Jesusen baitan bat egiten gaituzu,
 eta familia bereko seme-alaba egiten
 Izpiritu Sainduaren bidez.

Hoinbeste maite gaituzulakotz,
 eskerrak emaiten dauzkizugu,
 zeruan goresten zaituzten
 aingeru eta sainduekin kantari :

Denek

Saindu, Saindu, Saindua - Saindu ! -
 diren guzien Jainko Jauna.
 Saindu, Saindu, Saindua - Saindu ! -
 diren guzien Jauna.
 Zeru lurrak beterik dauzka zure distirak.
 Hozana, hozana, oh ! (*bis*)
 Benedikatua da zeru goretan,
 Jaunaren izenean datorrena.
 Hozana, hozana, oh ! (*bis*)



Benedikatua izan bedi Jesus,
ttipien eta behartsuen adiskide izaiteko zuk igorria.

Bera hortarako etorri zen : guri erakusteko
zu, gure Aita, nola maita,
eta guk nola elgar maita.

Bera etorri zen, gizakien bihotzetik kentzeko
adiskide izaita debekatzen duen gaizkia
eta zoriona kentzen daukun herra.

Berak hitzeman dauku
Izpiritu Saindua beti gurekin izanen dela,
zure biziaz bizi gaitezen.

Denek Benedikatua da zero goreneta,
Jaunaren izenean datorrena.
Hozana, hozana, oh ! *(bis)*

Be - ne - di - ka - tu - a da - - - - ze - ru go - re - ne - tan - - - -

Jau - na - ren i - ze - ne - an - - - - da - to - rre - na. - - - -

Ho - za - na, ho - za - na, oh ! - - - - Ho - za - na, ho - za - na, oh ! - - - -

Eskuak bildurik eta oparigaien gainerat zabaldurik

Jaingo gure Aita, igor ezazu zure Izpiritua
Jogi eta arno hauek
Jesus gure Jaunaren Gorputz eta ✠ Odol egin daitezen.

Berak, hil bezperan,
zure maitasun neurrigabea erakutsi zaigun ;
bere dizipuluekin mahaian zagolarik,
ogia hartu zuen, eta otoitz bat egin,
zu benedikatzeko eta zuri eskerrak emaitako ;
zatitu zuen ogia eta heieri eman zien, erranez :

«HAR ZAZUE TA JAN GUZIEK HUNTARIK :
HAU NERE GORPUTZA BAITA,
ZUENTZAT EMANEN DENA.»

Apezak Kristo guretzat emana.
Denek Kristo guretzat emana.



Gero, kaliza arnoz betea harturik,
otoiz egin zuen, zuri eskerrak emateko,
eta kaliza eskaini zien, erranez :

«HAR ZAZUE TA EDAN GUZIEK HUNTARIK :
HAU NERE ODOLAREN KALIZA BAITA,
BATASUN BERRI TA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO IXURIKO DENA.»

Eta gero erran zien :
«EGIZUE HAU NERE OROIGARRI.»

Apezak Kristo guretzat emana.
Denek Kristo guretzat emana.

Apezak Hau da sinestearen misterioa.
Denek Kristo guregatik hil da ;
Kristo hilen artetik piztu da.
Zure zain gaude, Jesus Jauna ! (*bis*)



A ita guziz ona, gogoan ditugu orai
Jesus munduaren Salbatzailearen
heriotzea eta piztea.

Bere burua eman zuen eta gure esku utzi,
orain eskaintzen dauzugun
adiskidetzearen eta bakearen gure sakrifizio izaiteko
eta gu zureganat eramaiteko.

Denek Ospea eta aintza gure Jainkoari !
Ospea eta aintza gure Jainkoari !

Os - pe - a e - ta ain - tza gu - re Jain - ko - a - ri. _____

Os - pe - a e - ta ain - tza gu - re Jain - ko - a - ri. _____

edo

Gora zu, gora zu, benedikatua zu !
Gora zu, gora zu, eskerrak zuri !

Go - ra Zu, go - ra Zu, be - ne - di - ka - tu - a Zu, _____

Go - ra Zu, go - ra Zu, es - ke - rrak Zu - ri. _____

Entzun gaitzazu, Jainko Jauna,
eta emaguzu zure maitasun Izpiritua
mahai huntan parte duten guzieren,
gero ta elgartuago bizi gaitezen zure Elizan,
I. gure Aita sainduarekin,
I. gure Artzainarekin, beste artzainekin,
eta zure herriaren zerbitzari guziekin.

Denek Gorputz bat guziak, zu goratzeko,
izpiritu bat, Jauna, zu goratzeko !

Gor - putz bat gu - zi - ak Zu go - ra - tze - ko, ____
Iz - pi - ri - tu bat, Jau - na, Zu go - ra - tze - ko. ____

Gogoan izan, Jauna, maite ditugunak :
gure buraso, haurride eta lagunak,
bai-ta maiteago izan behar genituzkeenak ere.

Lehen kominioneko mezan :

Zonbait direnean kominiatuko dutenak :

Gaur, bereziki,
lehen aldikotz Eukaristia hartuko duten [I. eta I.]
gure haurride hauentzat eskatzen dauzugu :
zure familiaren mahaian
biziaren ogia eta salbamenduaren kaliza
hartzera deitu dituzu ;
egizu handi daitezela beti
Zure adiskidetasunean.

Bakarra denean kominiatuko duena :

Gaur, bereziki,
lehen aldikotz Eukaristia hartuko duen [I.]
gure haurride hunentzat eskatzen dauzugu :
zure familiaren mahaian
biziaren ogia eta salbamenduaren kaliza
hartzera deitu duzu ;
egizu handi dadila beti
Zure adiskidetasunean.

Gogoan izan gure hilak ...
eta bizi huntarik bakean joan diren guziak :
har itzazu maitasunez zure etxean.

Denek Gorputz bat guziak, zu goratzeko,
izpiritu bat, Jauna, zu goratzeko !

Bil gaitzazu, Aita, gu ere egun batez zure ondoan,
Jesusen Ama eta gure Ama den Maria Birjinarekin,
huneren senar Josep sainduarekin,
zure Erreinuan beti iraunen duen
egun pozgarria ospa dezagun ;
han, Jesu Kristo gure Jaunaren adiskide guziek
beti goretsiko zaituzte.

Hunen bitartez, hunekin eta hunetan,
zuri, Jainko Aita guziahaldunari,
Izpiritu Sainduarekin batean,
ospe eta aintza guzia
gizaldi eta gizaldi guzietan.
R. AMEN

➤ *Segida : GURE AITA 486 or.*